**2/2020 EBAZPENA, maiatzaren 28koa.**

**PRESIDENTEA:** María Barrena Ezcurra.

**MAHAIKIDEA:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

**IDAZKARIA:** Cesar Alonso Campo

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasuneko Erreklamazioen Batzordeak –goian adierazitako pertsonek osatzen dutena– **Agiantza elkarteak** aurkeztutako salaketa dela-eta ondoko EBAZPENA eman du. Cesar Alonso Campo jaunak jardun du txostengile, eta berak adierazi du batzordearen iritzia.

## EGITATEZKO AURREKARIAK

**LEHENENGOA.**
, Agiantza Elkarteko den aldetik, informazio publikoa eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen 2020ko urtarrilaren 22ko idazkiaren bidez, honela:

*"2019ko urriaren 18an, Gizarteratze Ataleko zuzendari ahoz jakinarazi zigun, 2019ko abenduaren 31tik aurrera, Aldundiak ez zuela gure zerbitzurik baliatuko, eta erabaki hori ahobatezkoa eta ezeztaezina zela.*

*Geroago, esandakoaren jakinarazpena iritsi zitzaigun, foru-diputatu sinatuta.*

*Azken hilabeteotan, behin eta berriro galdatu dugu idatziz programatik baztertzeko arrazoiak zein diren; ildo horretan, jaso dugun ahozko erantzun bakarra izan da, sailaren arabera, tratu iraingarria, abusua eta tratu txarrak eman dizkiegula programako parte-hartzaileei eta langileren bati.*

**RESOLUCIÓN 2/2020, de 28 de mayo.**

**PRESIDENTA:** María Barrena Ezcurra.

**VOCAL:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

**SECRETARIO:** César Alonso Campo.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la denuncia formulada por **Asociación Agiantza Elkartea**, actuando como ponente Don César Alonso Campo, quien expresa el parecer de la Comisión

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.** Mediante escrito de 22 de enero de 2020 , en su condición de de la Asociación Agiantza Elkartea, presentó solicitud de acceso a información pública, en los siguientes términos:

*"El día 18 de octubre de 2019, el Director de la Sección de Inclusión Social, nos comunica verbalmente que, a partir del 31 de diciembre de 2019, la Diputación prescindirá de nuestros servicios y que esta decisión es unánime e irrevocable.*

*Con posterioridad nos llega dicha comunicación, firmada por la Diputada*

*Durante estos meses hemos solicitado reiteradamente por escrito las razones por las cuales hemos sido excluidos del programa y la única contestación verbal que hemos recibido es que, según el Departamento, hemos cometido trato denigrante, abuso y maltrato hacia los participantes del programa y hacia alguna trabajadora*

*Horregatik guztiagatik*

***HAUXE ESKATZEN DUGU***

*Sailak dioenaren arabera, gure elkarteko kideok egindako jardunbide oker guztiak jasotzen dituen 27 orriko txosten idatzia.*

*28 urtean Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera lanean aritu ostean, gure irudia eta ospea horrela lohitu ezin direlakoan gaude".*

*Por todo ello*

***SOLICITAMOS***

*El informe escrito que, según el Departamento, contiene 27 folios donde se evidencian estas malas prácticas que hemos realizado.*

*Después de 28 años trabajando conjunto con la Diputación, entendemos que nuestra imagen y nuestra reputación no pueden quedar manchadas de esta manera."*

**BIGARRENA.** Informazioa eskuratzeko eskaerari dagokionez, Gizarteratzeko zuzendari nagusiaren martxoaren 3ko 1/2020 Ebazpena eman zen; horren bidez, eskaera izapidetzeko ez onartzea erabaki zen, 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluaren c) letran jasotako kausak tartean zeudela iritzita, honako arrazoibide honetan funtsatuta:

**SEGUNDO.** - Sobre la solicitud de acceso, recayó la Resolución 1/2020, de 3 de marzo, del Director General de Inclusión Social, que acordó su inadmisión a trámite, al entender que concurrían en ella las causas contenidas en el apartado c) del artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, en base al siguiente razonamiento:

*"Erakunde eskatzaileak arreta eskaintzen zien erabiltzaile jakin batzuei, 2018ko abuztuaren 23an, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera. Hala, elkarteak gazteekiko esku-hartzea garatzen zuen, JARETZA izeneko programaren esparruan. Hitzarmen hori Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan arautatako aintzat hartuta formalizatu zen. Lege horrek aipaturiko tresna arautzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzua osatzen duten zentroak eta zerbitzuak kudeatzeko.*

*Hitzarmenak 18 hilabeteko indarraldia ezarri zuen, hau da, 2018ko uztailaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra artekoa. Era berean, hamabigarren xedapenean, 18 hilabetez luzatzeko aukera ezarrita zegoen bi alderdiak ados jarrita, baina luzapenen gehieneko kopurua bakarra zen.*

*Prerrogatiba hori baliatuz, Bizkaiko Foru Aldundiak luzatzeko aukera ez baliatzeko erabakia jakinarazi zion erakundeari, urriaren 31ko idazki baten bidez. Idazki hori, azkenean,*

*"La entidad solicitante llevaba a cabo la atención a personas usuarias en virtud del Convenio de colaboración suscrito con fecha 23 de agosto de 2018 con el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, para la intervención con personas jóvenes en el programa denominado JARETZA. Dicho convenio se formalizó con base en lo previsto en los artículos 69 y siguientes de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales que prevé esa figura para la gestión de los centros y servicios que forman parte del Servicio Vasco de Servicios Sociales.*

*El convenio en cuestión preveía una vigencia de 18 meses, es decir, abarcaba el periodo comprendido entre el 1 de julio de 2018 y el 31 de diciembre de 2019. Asimismo, su estipulación duodécima establecía la posibilidad de una prórroga por el mismo período de 18 meses, de mutuo acuerdo, siendo una el número máximo de prórrogas.*

*En ejercicio de dicha prerrogativa, la Diputación Foral de Bizkaia comunicó a la entidad, mediante escrito de fecha 31 de*

2019ko azaroaren 20an jakinarazi zen, hainbat saiakera ustel egin ondoren.

octubre, su decisión de no ejercitar la opción de prórroga. Dicho escrito fue notificado, tras varios intentos infructuosos, con fecha 20 de noviembre de 2019.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Aurretik adierazi den moduan, eskabidearen bidez, ustezko txosten edo agiri bat eskuratu nahi da, eskatzailearen iritziz, txosten edo dokumentu horrek elkartea programatik kanpo uztea ekarri baitzuen.

Ildo horretan, adierazi behar da, erreklamatzaileak azaldutakoaren aurka, ez dagoela administrazio-egintzarik, ez ebazpenik, erakundea hitzartutako zerbitzuen emaile gisa "baztertzea" ekarri duenik; aitzitik, Jaretza programa kudeatzeko lankidetza-hitzarmenaren hamabigarren hizpaketan arautzutakoa oinarritzat hartuta, esan beharra dago ez dela baliatu hitzarmena luzatzeko aukera, eta prerrogatiba hori aukerakoa dela Administrazioarentzat; hortaz, luzatzeko aukera balia dezake ala ez, erakunde laguntzailearekin aldez aurretik hitzartuta.

Arestian esandako hizpaketak honela dio hitzez hitz:

"Hitzarmen honen indarraldia 2018ko uztailaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra artekoa izango da, baina, betiere dagokion ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura nahikoa balego, HAMAZORTZI (18) HILABETEZ luzatzea erabaki ahal izango da, bi aldeak ados jarrita. Dena dela, luzapenen gehieneko kopurua bakarra (1) izango da".

Aurrekoa finkatu ondoren, erakundearen eskabidea aztertu behar da: eskaeran, erakunde hornitzaile gisa baztertzea eragin duten ustezko "txostenak" aipatu ditu.

Adierazi behar da, lankidetza-hitzarmenak gauzatzeko eta kudeatzeko esparruan ohikoa den moduan, dokumentu ugari prestatu direla hitzarmena indarrean egon den bitartean, hala nola eginbideak, erabiltzaileekin egindako prozesuen balorazio- eta jarraipen-txostenak edo hitzarmenaren egikaritzeari buruzko txostenak, burutzetan edo zuzendaritza

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- Conforme se ha señalado anteriormente, la solicitud pretende acceder a un supuesto informe o documento que, a juicio de la solicitante, dio lugar a su exclusión del programa.

En ese sentido debe señalarse que, contrariamente a lo indicado, no existe ningún acto administrativo ni resolución que haya supuesto la "exclusión" de la entidad como prestadora de servicios convenidos, sino que, con base en lo previsto en la estipulación duodécima del convenio de colaboración para la gestión del Programa Jaretza, no se ha ejercitado la opción de prórroga del convenio, prerrogativa de carácter discrecional de la Administración, que ésta puede ejercitar o no, previo acuerdo en tal sentido con la entidad colaboradora

La señalada estipulación establece, de forma literal que:

"El presente convenio tendrá una vigencia que abarca el periodo comprendido entre el 1 de julio de 2018 y 31 de diciembre de 2019, si bien, siempre y cuando exista la correspondiente consignación presupuestaria para el ejercicio de que se trate, podrá acordarse, de mutuo acuerdo, la prórroga del mismo por periodo de DIECIOCHO (18) MESES, siendo una (1) el número máximo de prórrogas."

Una vez sentado lo anterior, debe examinarse la solicitud de la entidad: dicha solicitud hace referencia a supuestos "informes" motivadores de su exclusión como entidad proveedora.

Debe señalarse que, como resulta habitual en el marco de la ejecución y gestión de los convenios de colaboración, durante su período de vigencia se han elaborado numerosos documentos, tales como diligencias, informes de valoración y seguimiento de los procesos con las personas usuarias o informes relativos a la ejecución del

*politikoan aurkezteko.*

*convenio con destino a jefaturas o a la dirección política.*

*Jarduketa horien emaitzak eta, hala badagokio, horien ondorioz hartutako neurriak, erakundeari jakinarazi zaizkio hitzarmena indarrean jarri zenetik egindako koordinazio- eta jarraipen-bilera ugarietan.*

*El resultado de dichas actuaciones y las medidas adoptadas, en su caso, como consecuencia de las mismas, se han puesto en conocimiento de la entidad en las numerosas reuniones de coordinación y seguimiento celebradas desde la entrada en vigor del convenio*

*Ildo horretan, badirudi erakundeak "txosten" jakin batzuetan funtsatzen duela bere eskaera, txosten horien zioz, hitzarmena azkendu bide delako, idazkian adierazi duenez.*

*En este sentido, la entidad parece focalizar su solicitud en determinados "informes" que, según indica en su escrito, habrían dado lugar a la resolución del convenio.*

*Argi utzi da ez dela hitzarmena azkentzeko prozedurarik egon, ez eta, beraz, hura arrazoitzen duen txostenik ere. Hartara, adierazi behar da erakundeak aipatzen dituen "txostenak", egiatan, aurreko lerroaldeetan zehaztu diren eta hitzarmenaren jarraipena egiteko halabeharrez ekoitzi diren barne-dokumentu batzuk direla. Hala, dokumentazio horren barrukoak ditugu hitzarmena kudeatzen duen zerbitzuak Saileko zuzendaritza politikoari egindako komunikazioak, erakundearekiko lankidetzaren bilakaera jasotzen zutenak. Dokumentu horietan, laburbiltzen da Agiantza elkarteak hitzartutako Jaretza zerbitzua nola kudeatu duen, eta aipatutako zuzendaritza politikoak kontuan hartu du kudeaketa hori erakundearekin egindako bilerak prestatzeko.*

*Habiéndose dejado claro que no ha existido ningún procedimiento de resolución del convenio ni, por tanto, ningún informe motivador del mismo, debe señalarse que los "informes" a los que alude la entidad constituyen, en realidad, una serie de documentos cuya naturaleza se ha definido en los párrafos anteriores y que suponen una producción documental de carácter interno necesaria para el seguimiento del convenio. Así, se incluyen entre dicha documentación comunicaciones del servicio gestor del Convenio a la dirección política del Departamento, en las que se dejaba constancia de la evolución de la colaboración con la entidad. En dichos documentos se resume la gestión por parte de la Asociación Agiantza Elkartea del servicio convenido Jaretza, y ha sido tenida en cuenta por la citada dirección política para la preparación de las reuniones celebradas con la Entidad.*

*Idazkian mahairatutako gainerako gaiak aski ezagutzen ditu erakundeak; izan ere, hitzarmenaren indarraldian zehar, berriz diogu, hitzarmenaren gauzapenaren jarraipena egiteko bilerak egin dira, gutxienez, bi hilean behin, Agiantza elkartearen eta Balorazio eta Orientazio atalaren burutzaren eta, hala badagokio, Gizarteratzeko Zerbitzuko buruaren artean.*

*El resto de cuestiones planteadas en el escrito son de sobra conocidas por la entidad ya que a lo largo de la vigencia del convenio, reiteramos, se han realizado reuniones de seguimiento de su ejecución, mínimo de carácter bimensual, entre la Asociación Agiantza Elkartea y la jefatura de la sección de Valoración y Orientación y en su caso, la jefatura del Servicio para la Inclusión.*

*BIGARRENA.- Aurrekoa adierazi ondoren, eskaera aztertu behar da, eta, lehenik eta behin, eskaera ez onartzeko arrazoiren bat dagoen erabaki behar da.*

*SEGUNDO.- Una vez señalado lo anterior, procede examinar la solicitud, determinándose en primer lugar si concurre alguna causa de inadmisión de la misma.*

*Foru arau horren 22. artikuluan*

*En virtud de lo establecido en el artículo 22*

ezarritakoaren arabera, arrazoitutako ebazpen baten bidez, informazio publikoa eskuratzeko eskabideen izapidetzea ez onartzea izango da honako arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean:

"(...)

b) Informazioa osagarria, instrumentala edo lagungarria izatea. Izaera hori izango du oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barne-komunikazioetan eta izaera bereko edo administrazio-organo edo -erakundeen arteko txostenetan jasotako informazioak".

HIRUGARRENA.- Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren (aurrerantzean, GGOK) 2015eko azaroaren 12ko Interpretazio Irizpidearen arabera, bidezkoa da laguntza-izaerako edo laguntza-izaerako informazio-eskaera bat izapidetzea ez onartzea, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

1.- Organo edo erakunde baten jarrera adierazten ez duten egilearen iritzi edo aburu pertsonalak agertzen dituenean.

2.- eskatutakoa atariko testu edo zirriborro bat denean, behin betikotzat jo ezin dela.

3.- eskaera jasotzen duen organo edo erakundearen jarduera prestatzeko informazioa denean.

4.- eskabidea prozeduraren izapideak ez diren barne-komunikazioei buruzkoa denean.

5.- Derrigorrezkoak ez diren txostenak direnean eta azken erabaki baten arrazoitzat hartzen ez direnean.

LAUGARRENA.- Eskaera aztertu ondoren, aurreko ataletan azaldutakoaren arabera, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusi honen iritziz, aurreko azalpenean jasotako 3, 4 eta 5. kasuak gertatzen dira.

Alde batetik, Gizarteratzeko Zerbitzuaren jarduera prestatzeko informazioa da, hala nola Sailaren zuzendaritza politikoari jakinaraztea Agiantza elkarteak kudeatu izan duen Jaretza

de dicha Norma Foral, mediante resolución motivada cabrá la inadmisión a trámite de las solicitudes de acceso a la información pública cuando concurra alguna de las siguientes causas:

"(...)

b) Que la información tenga carácter auxiliar, instrumental o de apoyo. Tendrá este carácter la información contenida en notas, borradores, opiniones, resúmenes, comunicaciones internas e informes del mismo carácter o entre órganos o entidades administrativas"

TERCERO.- Conforme al Criterio Interpretativo del Consejo de Transparencia y Buen Gobierno (en adelante CTBG), de 12 de noviembre de 2015, procede la inadmisión a trámite de una solicitud de información que tenga carácter auxiliar o de apoyo cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

1.- Cuando contenga opiniones o valoraciones personales del autor que no manifiesten la posición de un órgano o entidad.

2.- Cuando lo solicitado sea un texto preliminar o borrador sin la consideración de final.

3.- Cuando se trate de información preparatoria de la actividad del órgano o entidad que recibe la solicitud.

4.- Cuando la solicitud se refiera a comunicaciones internas que no constituyan trámites del procedimiento.

5.- Cuando se trate de informes no preceptivos y que no sean incorporados como motivación de una decisión final.

CUARTO.- Una vez analizada la solicitud y a tenor de lo expuesto en los apartados anteriores, esta Dirección General de Inclusión Social considera que concurren los supuestos 3, 4 y 5 contemplados en el expositivo precedente.

Por un lado, se trata de una información preparatoria de la actividad del Servicio para la Inclusión, como es poner en conocimiento de la dirección política del Departamento la

*Programaren egoera, erakundearen eta Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren artean sinatutako lankidetza-hitzarmenean oinarrituta.*

*situación del Programa Jaretza, gestionado por la Asociación Agiantza Elkartea, con base en el convenio de colaboración suscrito entre la entidad y el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.*

*Beste alde batetik, informazio hori barrukoa da, eta ez da inolako prozeduraren izapiderik, lehenengo oinarrian azaldutako arrazoiengatik (bilerak prestatzeko dokumentuak).*

*Por otro lado, dicha información tiene carácter interno y no constituye un trámite de ningún procedimiento, por las razones expuestas en el fundamento primero (documentos preparatorios de reuniones).*

*Era berean, ez dago nahitaezko txosten baten izaera duen eskatutako dokumenturik, ez eta azken erabaki baten motibazio gisa txertatu denik ere; izan ere, hitzarmenak berak ezartzen zuen luzatzeko aukera, baldin eta bi alderdiak ados egonez gero; ez ordea, hitzarmena luzatzeko derrigortasuna.*

*Asimismo, no existe ningún documento solicitado que tenga el carácter de un informe preceptivo ni que haya sido incorporado como motivación de una decisión final, puesto que el propio convenio ya establecía únicamente la posibilidad de prórroga en caso de mutuo acuerdo, nunca la obligatoriedad de llevarla a cabo.*

*Kasu honetan, Gizarteratzeko Zerbitzuak ez du hitzarmena luzatzeko aukera baliatu.*

*En el presente caso el Servicio para la Inclusión no ha hecho uso de dicha opción de prórroga.*

*Hori dela eta, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan eta horrekin bat datozenetan xedatutakoa betez, eta nire eskumenak baliatuz, honako hau ematen dut:*

*Por ello, en cumplimiento de lo previsto en los artículos 18 y concordantes de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia y en ejercicio de las facultades de las que soy titular, vengo a dictar la siguiente:*

*EBAZPENA*

*RESOLUCIÓN*

*LEHENENGOA.- Eskatutako informazioa eskuratzeko eskaeraren izapidetzea ez onartzea, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. c) artikuluan (b) izan behar du) xedatutakoaren arabera".*

*Primero.- Inadmitir a trámite la solicitud de acceso la información solicitada, con fundamento en lo dispuesto en el artículo 22. c) (debe ser b)) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero."*

**HIRUGARRENA.** - Agiantza Elkarteak, haren ordezkaritzan jardun zuen bitartez, erreklamazioa aurkeztu zuen Gardentasun Batzorde honetan, 2020ko apirilaren 21ean. Hona hemen erreklamazioa, hitzez hitz:

**TERCERO.** - En fecha 21 de abril de 2020 la Asociación Agiantza Elkartea, y en su representación, , presentó reclamación ante esta Comisión de Transparencia, con el siguiente literal:

*"Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren erantzuna jaso ondoren, erantzun hori nahikoa ez dela iritzita, Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusira jo dugu berriro, gure kasua aztertzeko eskatuz".*

*"Una vez recibida la contestación del Dpto. de empleo Inclusión social e Igualdad considerando dicha respuesta como insuficiente, volvemos a dirigirnos a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia solicitándole estudie nuestro*

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENENGOA**- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen.

Foru Arau honen 29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluari lotuta, biak ala biak foru-arau honi datxezkiola, Erreklamazio Batzordeak eskumena izango du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomiadunen, foru-enpresen erakunde publikoen, foru-merkataritzako sozietateen, foru-fundazioen eta foru-partzuergoen eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebazteko.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordearen antolaketa- eta funtzionamendu-araudiak, uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, 18. artikuluan ezartzen du, besteak beste, Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela: *“a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo isilbidez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauak ezarritako baldintzetan.*

**BIGARRENA.** - , Agiantza Elkarteko den aldetik, aurkeztutako informazio publikora iristeko eskaera izapidetzea ez onartzeagatik egin da erreklamazio hau. Izapidetzea ez onartzea Gizarteratzeko zuzendari nagusiaren martxoaren 3ko 1/2020 Ebazpenaren bidez erabaki zen, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. b) artikuluak xedatutakoari jarraiki.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren

*caso.”*

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.**- La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *“a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.”*

**SEGUNDO.** - La presente reclamación se formula ante la inadmisión a trámite de la solicitud de acceso a información pública presentada por como de la Asociación Agiantza Elkartea, que fue acordada mediante la Resolución 1/2020, de 3 de marzo, del Director General de Inclusión Social, en base a lo dispuesto en el artículo 22. b) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero.

El artículo 22 de la citada Norma Foral

17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluaren b) letrak ezartzen duenez, ez dira izapidetzeko onartuko informazio publikoa eskuratzeko eskabideak, baldin eta atal horrek zehazten dituen bost arrazoietako bat gertatzen bada, besteak beste: *"b) Informazioa osagarria, instrumentala edo lagungarria izatea. Izaera hori izango du oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barne-komunikazioetan eta izaera bereko edo administrazio-organo edo -erakundeen arteko txostenetan jasotako informazioak".*

1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, establece en su letra b) la inadmisión a trámite de las solicitudes de acceso a la información pública, en el supuesto de que concurra alguna de las cinco causas que especifica, entre las que figura: *"b) Que la información tenga carácter auxiliar, instrumental o de apoyo. Tendrá este carácter la información contenida en notas, borradores, opiniones, resúmenes, comunicaciones internas e informes del mismo carácter o entre órganos y entidades administrativas".*

Xedapen honek sortu dituen interpretazio-zalantza garrantzitsuen ondorioz, kontuan hartuta horrela kalifikatutako informazioa ez dela definitu, eta ez direla zehaztu zerrendan ageri diren agiri-motak, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak azaroaren 12ko 6/2015 Interpretazio Irizpidea onartu zuen, eta bertan argitu zuen ez onartzeko arrazoia dela, besteak beste, aipatzen dituen bost baldintzetako bat betetzen duen informazioa izatea. Ez dugu edukia atal honetara berriro ere ekarriko, egitatezko aurrekarietan ageri baita.

Las importantes dudas interpretativas que esta disposición ha suscitado, ante la ausencia de definición en la misma de la información así calificada, junto con la indeterminación de los tipos de documentación enumerados, llevó al Consejo de Transparencia y Buen Gobierno a la aprobación del Criterio interpretativo 6/2015, de 12 de noviembre, en el que aclara que la causa de inadmisión deviene ante aquella información en la que concurra, entre otras, alguna de las cinco circunstancias que refiere, y cuya transcripción en este punto resultaría redundante, al aparecer recogido en los Antecedentes de hecho.

<u>HIRUGARRENA</u>. Batzorde honen iritziz, goian aipatutako martxoaren 3ko 1/2020 Ebazpenaren zuzenbideko oinarrietan zehatz-mehatz aletu den moduan –oinarri horiei lotzen gatzaizkie, horien edukia berriro errepikatzea beharrezkoa ez dela–, behar bezala egiaztatuta eta arrazoituta geratu da eskatutako informazioan 6/2015 Interpretazio Irizpidean zehaztutako hiru kasu gertatu direla, hau da, 3, 4 eta 5. zenbakien bidez emandakoak. Ez da, beraz, jasotzen duen organoaren behin betiko informazioa, ezpada, prestatzekoa, barnekoa eta ez nahitaezkoa, eta ez du hartutako erabakia arrazoitzen.

<u>TERCERO</u>. – A juicio de esta Comisión, y tal y como se ha detallado pormenorizadamente en los fundamentos de derecho de la Resolución 1/2020, de 3 de marzo, arriba citada, a los que nos remitimos y sin que sea necesario repetirlos, ha quedado suficientemente acreditada y motivada la concurrencia en la información solicitada de tres de los supuestos explicitados en el Criterio interpretativo 6/2015, a saber, los identificados con los números 3, 4 y 5, por tratarse de una información preparatoria y no final del órgano que la recibe, de carácter interno, y no preceptiva, que no figura incorporada a modo de motivación de la decisión adoptada.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatu behar da bidezkoa dela eskatutako informazioa eskuratzeko eskaera izapidetzea ez

Por todo lo cual, se ha de concluir que resulta procedente la inadmisión a trámite de la solicitud de acceso a la información

onartzea, informazio hori osagarria, instrumentala edo lagungarria dela esan baitaiteke, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluaren b) letran araututako baldintzetan.

Ondorioz, Batzorde hau ez dator bat alderdi erreklamatzaileak adierazitako tesiarekin; izan ere, aurkeztutako alegazioen funts nagusia da emandako ebazpena "ez dela nahikoa" eta, beraz, ulertu behar da erreklamatzaileak arrazoiketa ez duela nahikotzat jotzen, inolako argudiorik aurkeztu gabe, ez eta bere baieztapenaren oinarri den arau-babesik ere. Hala, batzordearen iritziz, ondoriozta daiteke erreklamazio honen xede den ebazpena behar bezala arrazoituta dagoela, eta ez da arrazoirik ikusten hartutako erabakia Zuzenbidearekin bat ez datorrela ulertzeko.

Aurreko arrazoiengatik, Batzorde honen irizpenez, ezetsi egin behar da egindako erreklamazioa.

*Horregatik guztiagatik, gardentasunaren arloko erreklamazio-batzorde honek honako hau erabaki du:*

## EBAZPENA

__Lehenengoa__.- Agiantza elkarteak eta, haren ordezkaritzan,
Gizarteratzeko zuzendari nagusiaren martxoaren 3ko 1/2020 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa EZESTEA.

__Bigarrena__.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea. Halaber, Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Foru Saileko Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

__Hirugarrena__.- Ebazpen hau jakinaraztea Herri Administraziorako eta Erakunde

requerida, al ser predicable de ésta su carácter auxiliar, instrumental o de apoyo, en los términos previstos en la letra b) del artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero.

En consecuencia, esta Comisión no comparte la tesis enunciada por la parte reclamante, quien, por toda alegación presentada se limita a calificar de "insuficiente" la Resolución emitida, debiendo entender que se refiere a una insuficiente motivación, sin aportar argumentación alguna, ni apoyo normativo que sustenten su afirmación, y a juicio de la misma cabe concluir que la Resolución objeto de la presente reclamación está suficientemente motivada, no apreciándose razones para entender que la decisión adoptada no resulte ajustada a la normativa vigente.

Por las razones anteriores esta Comisión considera que debe desestimarse la reclamación formulada.

*Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda:*

## RESOLUCIÓN

__Primero__.- DESESTIMAR la reclamación planteada por la Asociación Agiantza Elkartea, y en su representación, por
contra Resolución 1/2020, de 3 de marzo, del Director General de Inclusión Social.

__Segundo__.- Notificar esta resolución al interesado. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

__Tercero__.- Comunicar esta resolución a la Dirección General de Buen Gobierno y

Harremanetarako Saileko Modernizazio, Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari.

Transparencia del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitu da, eta, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jarduera-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta administrazioarekiko auziak arautzen dituen jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.